

argazkigintza &gt; argi-itzalak

# 'Laborategi lehorraren' iraultza



Hondarribiko hondartzan ateratako argazkia. Argazki digitala da, ondoren ordenagailuan landua.

Gerardo Garciak zuri-beltzeko argazkiekin eman zituen lehen pausoak, eta orain argazki digitalekin dabil.

## IDOIA ETXEBERRIA

Umetan, argazkilariek «izugarriko beldurra» ematen zioten Gerardo Garciari. Kameratik ihesi ibiltzen zen beti. Nork esango luke, bere ibilbidea ikusita: Irungo Argazki Elkartearen presidentea da, eta 25 urte inguru daramatza kamerari atsedetik eman gabe. «Kamera konpaktu bat oparitu zidaten, eta hala hasi nintzen zaleztan». Gero, Bilbon ikasi zituen argazkilaritzako teknikak; Fisika ikastera joan zenean, «unibertsita-

te garaian». Bueltan laborategi txiki bat jarri zuen etxeko ganbaran. «Handik gutxira elkartean hasi nintzen». Eta gaur arte.

Beasainen jaio bazen ere, 1967tik Irunen bizi da, eta «ia-ia irundartzat» du bere burua. Are gehiago: herriko saltsa guztietan ibili ohi da; «kalejiretan, herriko foroetan, alardean, Olentzeroren jaian...». Kamera aldean duela, noski. Euskara ikasten ere badihardu, gogotsu. Hori bai, argazkilaritza da denbora gehien kentzen diona: irudiak ateratzeaz aparte, argazkiekin lotutako jar-

«Nire ustez, argazkiak zerbait esan behar du. Askotan teknikan galtzen gara»

duerak antolatzen dabil beti, Irungo Argazki Elkartean. Erakusketak, ikastaroak, lehiaketak, argazki rallyak... Idazkari lanak egin ditu hainbat urtetan, eta iaz elkarreko buru izendatu zuten. «Erabat lotuta nago argazkilaritzari».

Zuri-beltzean hasi zen. «Magikoa iruditu zitzaidan, eta harrapatu egin ninduen». Denborarekin, koloreetako argazkira egin zuen salto, «erosotasunagatik batetik, eta bizitza koloreetan ikusten dudalako, bestetik». Kamera digitalak iritsi arte, diapositibak egin zituen batez ere. «Eta azken bi urte eta erdian, argazki digitalekin buru-belarri nabil. Buelatu naiz argazkia hasieran bezala egitera: hasieratik bukaerara. Baina laborategi lehorra da oraingoa: ordenagailua». Garciaren ustez, aro digitalak iraultza izugarria eragin du

## ■ nortasun aqiria

■ **Izena:** Gerardo Garcia Gonzalez.

■ **Jaio:** Beasainen, 1953an. Irunen bizi da, duela 39 urtetik.



■ **Ogibidea:** Irungo tren geltokiko bulego batean egiten du lana.

■ **Argazkilaritza:** Unibertsitate garaian hasi zen, zuri-beltzean. Orain, argazki digitalekin dabil. Sari asko lortu du argazki rallyetan eta Irun inguruko argazki lehiaketetan. Erakusketak batzuk ere egin ditu, elkarrekin batera. *Ibiltzen* liburua eman zuen argitaratuta, argazki-ibilbidea Irunen.


argazkilaritzan. «Lehen zegoena hankaz gora geratu da. Are gehiago: profesionalak gorriak ikusten ari dira. Argazki denda batzuk itxi egin dituzte... Baina elkarreentzat hoberako izan da: zaletasun handiagoa dago orain». Oso pozik daude, argazkilaritza digitaleko ikastaroa ematen hasi zirenetik kide gehiago dituztelako: «Igarri dugu jendeak jakin-min handia duela, eta argazki giro polita ari da sortzen. Ikasleak bultzatu ditugu hilero erakusketak egitera, eta motibatuta dabilta. Berritu edo hil!».

Eta alde txarrak? «Argazki asko ateratzeko aukera ematen duenez, enkuadrea gutxiago zaintzeko arriskua dago, ez behar beste kon-

zentratzekoa». Eta baita argazkiak ordenagailuan geratzeko ere, paperera pasatu gabe. «Oinak aukeratu eta papereratzeko ohitura hartu behar da. Album digitalak ere oso politak geratzen dira...». Bitartekoak aldatu egin dira, baina argazkiak argazki izaten jarraitzen duela uste du. «Nik enkuadrearari ematen diot garrantzia, une egokian klik egiteari». Kaletik paseatzen dabilenean ere oharkabean enkuadrazten ari dela konturatzen da batzuetan Garcia.

Erreportaje-argazkiak gustatzen zaizkio. «Nire ustez, argazkiak zerbait esan behar du. Askotan teknikan galtzen gara: argiegia, ilunegia... Niri gehiago inporta zait nola, zergatik baino. Baina, noski, argazki on batek dena izan behar du, teknikoki ere ona izan behar du». Erreportajeak eta paisaiak egiten ditu bereziki. «Festak, ohiturak, jendea erretratzea asko gustatzen zait. Hemen inguruan ateratzen ditut argazkiak: Irunen, Hondarribian... toki pribilegiaduna da». Eta gero orduak ematen ditu ordenagailuan, «hau eta bestea nola hobetu asmatu nahian. Emazteak ileetatik helduta bidaltzen nau ohera!», dio umoretsu.

Inguruko argazki lehiaketetan hartzen du parte, argazki rallyetan batez ere. «Argazkiak egiteko modu hori asko gustatzen zait, lagunarteko giroan». Bakarkako erakusketarik ez du egin orain arte. «Ez naiz ausartu. Denbora asko behar da prestatzeko, baina badut gogoia. Erronka polita da».



Meaka, Irungo auzo ederra.



Haurrak ikuskizun bati begira Hondarribian.



Irungo Euskal Jiran ateratako irudiak, ordenagailuan moldatuak.